

3D

EMANALDIA

Maddi Oihenart eta SokaHots Orkestrak martxoaren 6an Oztibarreko Bota gaztetxean eskainitako emanaldia.



Andrea Zubozki

Bota gaztetxeak (Oztibarre) kabaret gaualdi bat antolatu zuen. Bertan aritu ziren Paxkal Irigoyen, Les choeurs de la Citadelle, Jurgi Ekiza, Maddi Oihenart eta SokaHots Orkestra, eta Txiki donostiar antzerkilaria. Maddi Oihenart eta Jérémie Garatek iragan azaroan atera zuten *Doi* diskoa. Eta zuzenean presentatzeko beste bi musikariri laguntza eskatzen diote; Jimmi Arrabit (Itoiz, Sustraia...) bibrafonoan, eta Pascal Humbert (Detroit) kontrabaxu eta baxu akustikoan. Maddi kantuan, eta Jérémie biolontxelo eta gitarran (klasi-ko-elektro). Laukotean agertzen zauku beraz taldea.

Igande arratseko hura kabaret gaualdia izanki, talde bakoitzak lauzpabost kantu eman dauzkigu. Maddi eta orkestra instalatu dira, eta lehen kantua hasi. *Ogella*. Denboraren sakontasunaren xerka doan kontrabaxuak, doinua pausatzen du, lurrean zimendatzen. Gitarra, harmonia ekartzeaz gain, kantua

eramaiten du, biziki abilki; harmoniak eskatzen duen informazio minimoa emanez, eta xehetasun garrantzitsuz apainduz hutsuneak. Bibrafonoaren soinuak hastapenetik bidaiarako dimentsioa ekartzen du. Airean dabilen soinu ezin harrapa horrek, harrapatu nau ni hastapenetik. Holako elementuek ez dautate kontzertua maitatzea baino beste hauturik uzten. Eta horrelako kontzertuak maite ditut, hastapenetik objektibitatea eta luziditatea galarazten dauzkiatelarik.

Maddiren ahotsak, kantua kantu bilakarazten du. Vibrato naturala eta xuxentasuna. Rol nagusia du, dudarik gabe. Baina ez da protagonismorik agertzen. Taldea baizik. Plazer handi bat, lehen kantuan berean, konturatzea diskoan den hirugarren dimentsio hori zuzenean ere aurkiarazten daukutela.

Agian kantuarekin segitu dute. Pixka bat lehen kantua ber formatuan. Eta lehen kantuan bezala, momentu az-

karrak agertzen dira. Halako hitzordu batzuek haien artean. Lauek bat egiten dutelarik, eraman bideak juntatzen dituzte eta jauzi handi bat emaiten dute. Ez aitzinerat, baizik eta urrunago. Hirugarren dimentsioan soinuaren difusioa eremu guzietarat hedatzen baita. Soinuak ez du grabitateak inposatuko norabiderik errespetatzen.

Emazte fabore kantua ondotik. Gut-tien maitatu dudana. Oraindik "fresko" atzeman dut.

Eta bukatzeko *Denbora asko* kantua. Gitarra akustikoan, Jérémiek baizik eza-gutu behar duen afinazio batekin hasten da kantua. Berriz ere bidaiarako gomita.

Hartu zuen eserlekuak, ezar segurtasun uhala, bagoaz! Lurra gibelean utzi dugu, o! So egin hor! Ilargia! Deia gibelean da... Kosmosean barna, inguratzen gaituen materia musika da. Espazio denboraren infinitatea errazki ahanzten da, bizitzen dugun instanteak asetzen gaitueno. ■



EKE.EUS